

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Geure funtsezko jardueren bat Donostia hiria beste modu batean ezaguaraztea da, ibilbide tipikoa eginez aparte, gustuko duzun argazki baten lokalizazio zehatza ematen dizu, argazki zoragarriak ateratzeko hiri polit honetan.

Gure aplikazioa erabiltzeko nahia pizteko, dohainik eskainiko diegu gure zerbitzua, baita eta app solidario bat dela nabarmenduko dugu. Hortaz aparte, etxegabekoei janaria banatuko diegu gure lokalean otorduetan, haiek ez daukatelako ezer jaterik.

Guzti hau aurrera eramateko tabernen laguntza behar dugu, haiek soberan dituzten janariak egunaren amaieran bilduko dugu, hori banatu ahal izateko. Baita eta hilabetero kuota txiki bat ordainduko digute. Gainera soberakinekin janari taperweretan prestatuko dugu banatzeko.

Hotel, camping eta ostatuetan gure aplikazioaren zerbitzuak azalduko dizkiete turistei, hauek informazio bila daudenean edo tour bat egin nahi ditunean asko gastatu gabe.

Tabernaz aparte taxisten kolaborazioa beharko dugu, turistek gure partez hartzen badute taxia bidaiaren kostuaren zati bat guri donatuko digute, gure aplikazioa erabiltzen ari direla eta.

Aplikazio sortzaile bat kontratatuko dugu, hark guk nahi dugun aplikazioa sortzeko. Aplikazio honek hurrengo karakteristikak izango ditu:

- Geolokalizazioa mapa baten bidez
- Feed bat Instagram modura.
- Gauzak baloratzeko aukera (tabernak etab)
- Taxi geltokiak eta zenbakiak
- Autobusen geltokiak eta ordutegiak
- Ibilbidea
- Eguraldia
- Emanaldien informazioa

Aplikazioa ezaguarazteko, influencer-en laguntza beharko dugu, hauek promozio moduko bat egiteko eskatuko diegu, argazki bat igoz, adibidez.